

EGUERDITAKO EKINTZEN ESKAINTZA

Oraindik ere udara amaitzeko egun batzuk falta baditugu ere, hemen gatoz urteroko eguerditako ekintzen eskaintzarekin.

Aurten ere internet bidezko formulario bidez egingo dugu. Adin bakoitzeko umeentzako eskaintza, eta ekintza hauen azalpenak (zer landuko den, prezioa...) <https://www.lizeoa.eus/eguerdietakoekintzak> orrialdean daude.

Aldaketa askorekin dator aurtengo ikasturtea, beraz, mesedez adi irakurri jarraian emango zaizuen informazioa eta baita webgunean azaltzen den informazioa ere.


- Ekintzak **irailaren 16ean hasi eta maiatzaren 29an amaituko** dira.
- Daten aldaketak kuotetan aldaketak ekarri ditu. Orain arte ikasturte osoko kostea 9 kuotetan banatzen genuen eta aurten **8 kuotatan banatuko dugu (urritik maiatzera)**.
- Bestalde, **Pasaia Musikali dagozkion ekintzen kudeaketa ekonomikoa beraien esku** geratuko da. Horregatik, formularioaren amaieran baimena eskatzen zaizue beraiei zuen beharrezkok datuak emateko. Horrela ez balitz, gurean izen emateaz gain, kudeaketa ekonomikoa egiteko beraiekin jarri beharko zenukete harremanetan. Berdina pasatzen da, Ingeleseko eta Antzerkiko ekintzekin ere.

[Formularioa](#) **irailaren 10a baino lehen** bete dezazuen eskatu nahi dizuegu. (lotura web orrian ere baduzue)

Urtero moduan, gehienez bi ekintzetan har daiteke parte, eta **izena ematean ikasturte osorako konpromisoa hartzen da**.

Aurten eraikin nagusian Lide Lujanbio izango da eguerditako ekintzen arduraduna, eta Edurne Zabalegi izango da Lezoko ikastolakoa. Beraiekin argitu dezakezue ikasturtean zehar sortu daiteken edozein zalantza.

Ikasleen gustuko eskaintza prestatu dugulakoan, jaso gure agurrik beroena,



Edurne Urkiola Saldias
Lizeoko zuzendaria